

ERAKUNDEARTEKO BATZORDEAREN BILERAREN AKTA

2017ko URRIAREN 25a

Bertaratuak:

Juan Antonio Fernández jauna, Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzako idazkari nagusia eta Garapenerako Lankidetzaren Erakundearteko Batzordeko presidentea

Paul Ortega jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria.

María Guijarro andrea, Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkari gisa.

Fernando San Martín jauna, Gipuzkoako Foru Aldundia ordezkatzuz

Nekane Zeberio andrea, Arabako Foru Aldundiaren ordezkari gisa.

Juanma Balerdi jauna, Euskal Fondoa ordezkatzuz

Noemí de la Fuente andrea, idazkari gisa, hitzarekin baina botorik gabe.

Lekua:

Lehendakaritza, Vitoria-Gasteiz

Data eta ordua:

2017ko urriaren 25a, asteazkena, 12:00etan

2017ko urriaren 25eko 12.27an, Garapenerako Lankidetzaren Erakundearteko Batzordeko presidente Jonan Fernándezek bertaratuei ongietorria egin die, eta barkamena eskatu du 13.00etan alde egin behar duelako. Jarraian bilerari hasiera eman dio, honako gai-zerrenda honi jarraikiz:

- Aurreko bilkuraren akta irakurri eta onartzea
- Euskal lankidetzaren publikoaren gardentasun-ataria:
 - (i) balioespen orokorra
 - (ii) jendaurreko aurkezpena
 - (iii) hurrengo urratsak
- Uraren Erakundearteko Programa:
 - (i) gaia zertan den
 - (ii) konpromisoak berritzea
- Platforman (garapenerako toki- eta eskualde-agintarien Europako plataforma) parte hartzea
- ELGEren lankidetzaren deszentralizatuari buruzko azterlana
- Euskal Lankidetzaren Publikoaren jardunaldia
- (H)ABIAN 2030
- Laguntza Humanitarioko Estrategia
- Beste batzuk; galde-eskeak

1. AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA

Bertaratuek aurreko bilkurako akta onartu dute, aho batez.

2. EUSKAL LANKIDETZAREN PUBLIKOAREN GARDENTASUN-ATARIA

Bilkurari hasiera emateko, bertaratuek, txandaka, Atariari buruzko balioespena egin dute. Erakunde guztiek emaitzarekin pozik daudela adierazi dute, eta honako hauek azpimarratu dituzte: (i) oso baliagarria da euskal lankidetzaren egiten duenari buruzko ikuspegi orokor bat emateko eta euskal lankidetzari balioa emateko; eta (ii), erakunde bakoitzaren orrian atariaren datuetan sartzeko ematen duen aukera.

María Guijarrok adierazi du Ataria Bizkaiko Foru Aldundiko Modernizazio Kabineteari aurkeztu diotela, eredu gisa.

Juanma Balerdiren ustez, oso argazki zabala da, baina ez erabatekoa. Eta beste udalerrri batzuek parte hartu nahiko luketela erantsi du. Gainerako erakundeei planteatu die beste udalerrri batzuekin bat egiteko aukera, eta ekimen hori bi fasetan egin

litekeela: lehenbizi bolumen handiena duten udalerriak bilduko lirateke, hala nola Laudio, Amurrio, Hondarribia, Irun, Barakaldo eta Getxo, eta, ondoren, bigarren fase batean, zenbat udal gehiago erantsi zehaztu beharko genuke.

Azkenean adostu dute lehen fase batean lehendik bilduta dauden ekimenak berrikustea eta jendaurrean aurkeztea. Eta beste udal batzuk txertatzeko ekimena bigarren fase baterako uztea, non mekanismo, denbora eta kostuak ere aztertuko diren. GLEBak aztertuko du proposamen zehatza. Nekane Zeberioek proposatu du Atarian parte hartzeko baldintza bat jartzea: Euskal Fondoko kide izatea.

María Guijarrok galdetu du nor arduratuko den datu-basea elikatzeaz. Paul Ortegak erantzun dio Ataria EHUko Webgunearen barruan dagoela, eta GLEAk bere gain hartzen duela urteko datu-eguneraketa eta mantentzea ekonomikoki bideratzea, baina, nolana ere, datuak kargatzeko prestaketek eta ondorengo berrikuspenak erakunde bakoitzaren erantzukizuna izan behar dutela.

Ataria 2018an aurkeztea adostu dute, Euskal Lankidetzaren Publikoaren Jardunaldian, 2017ko datuak txertatuta. Aldez aurretik ataria aurkeztuko da, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren bilkuran, azaroaren 15ean. Proposamena GLEBak egin duela —eta ez Hegoak— nabarmendu beharra ikusi dute guztiek. Nekane Zeberioek aurkezpena egingo duela adostu dute, eta Euskal Fondoaren adibideak erakutsiko direla. Hegoari bilkurara bertaratzeko eskatuko zaio, zalantza teknikoak sor litezkeelako.

Nekane adierazi du “gardentasuna” hitza ezabatzea komeniko litzatekeela. Inork ez du horren kontra ezer esan.

Noemí de la Fuentek gogora ekarri du orriaren aurkezpena, ikuspegia eta helburuak ere berrikusi beharko liratekeela, Hegoak egindako proposamenari jarraikiz, litekeena delako aldaketaren bat egin behar izatea.

Jarraian erabaki dute gai-zerrenda aldatzea euskal lankidetzaren publikoaren hurrengo jardunaldiaren ospakizunei heltzeko, atariaren aurkezpenarekin lotuta dagoela aintzat hartuta.

3. EUSKAL LANKIDETZA PUBLIKOAREN JARDUNALDIA

Paul Ortegak gogora ekarri duenez, aurreko jardunaldia estu lotu zitzaion José Ángel Cuerdari Ellacuría Saria emateko ekitaldiari. Bertaratu guztiek uste dute jardunaldiak baliagarri izan beharko lukeela, saria emateko protokolozko ekitalditik haratago, euskal lankidetzaren publikoa eta erakundearteko ahalegina balioan jartzeko eta horri buruz gogoeta egiteko. Adostasuna nabari da horretan. Atariaren aurkezpena osagaietako bat izango litzateke, baina gaia zabaldu beharko litzateke, sor litezkeen ponentzia edo eztabaidei heltzeko eta erakundearen lidergoa ezartzeko.

GLEAk planteatu du ELGEk Europako lankidetzaren deszentralizatuari buruz egin duen azterlana aurkezteko aukera. Aurreikuspenen arabera, txostenaren aurkezpen ofiziala martxoan egingo da. Adierazi dutenez, jendaurreko aurkezpen bat egin liteke, eta jarraian gogoeta bat, ikuspegi konparatuari jarraikiz.

Nekane Zeberioi adierazi du GGKEen Koordinakundeak 30 urte bete dituela, agian hori kontuan har litekeelako Jardunaldiaren esparruan. Juanma Balerdik adierazi duenez, lehen jardunaldia mahaigaineratu zenean aipatu ziren helburuen artean, erakundearteko emaitzak aurkeztea eta gogoetarako gunea izatea aipatu ziren. Eta horregatik proposatu du ur-programa triangeluarraren aurkezpena aintzat hartzeko, hartan buru-belarri murgilduta gaudela aintzat hartuta. Fernando San Martínek proposatu du eduki teorikoagoren bat biltzea. María Guijarrok proposatu du mahai bat eratzea, eta mahakideek, askotariko pertsonak, lankidetzaren deszentralizatuaren balioan jartzea.

Erabaki dute ELGEekin hitz egitea txostenaren argitalpen-egunak berresteko eta ondorengo aurkezpena egiteko aukera balioesteko. María Guijarrok eskatu du martxoaren 8aren ondoren egiteko.

Paul Ortegak gogora ekarri du aurreko jardunaldia Gasteizen antolatu zela, udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren lidergoarekin. Nekane Zeberioi gaineratu du diputatu nagusiak eta alkateak erakundeak ordezkatu zituztela. María Guijarrok Itziar Urtasunekin hitz egiteko konpromisoa hartu du, alderdi logistikoaren ardura hartzeko. Bizkaia Aretoa kokaleku egokia izan litekeela iradoki dute.

4. URAREN ERAKUNDEARTEKO PROGRAMA

Noemí de la Fuentek egiten ari den identifikazioa zertan den azaldu du, labur-labur. Juanma Balerdik proposamenaren izaera triangeluarra azpimarratu du, prestakuntzari eta esperientzien elkartrukeari dagokienez.

Gipuzkoako Foru Aldundiak adierazi duenez, lankidetzaren funtsik ez dauka une honetan, baina Ingurumen Departamentua inplikatu nahian dabil, garapenerako eta gizarte-erantzukizunerako politiken koherentziaren esparruan.

Bizkaiko Foru Aldundiak jakinarazi duenez, une honetan ez du funtsik eskura, eta Ingurumen Saila inplikatzeke aukera aztertzen ari dira.

Arabako Foru Aldundiak ekimenaren aldeko konpromisoa berretsi du, eta kezkatuta azaldu da urtean 150.000 eurora iristeko konpromisoa bete gabe gera litekeelako, azkenean Gipuzkoak eta Bizkaiak bat egiten ez badute hasiera batean foru-mailan hartutako konpromiso horrekin.

Euskal Fondoak jakinarazi duenez, Gasteiz eta Bilbok beren konpromisoa adierazi dute, baina Donostiak zailtasunak jarri ditu agerian. Nolanahi ere, Euskal Fondoak adierazi du beste udal batzuk biltzeko konpromisoa hartuko lukeela udal-mailan

konprometitutako urteko 150.000 horietara iristeko, baldin eta azkenean Donostiak ekimenarekin bat egiten ez badu.

GLEAK berretsi duenez, Eusko Jaurlaritzak, URA agentziaren eta GLEAren bitartez urtean 150.000 euroko ekarpena egiteko konpromisoari eusten dio.

Ildo beretik, Juanma Balerdik adierazi du AMVISA programarekin guztiz konprometita dagoela, esperientzia teknikoari dagokionez. Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoa eta Txingudiko Zerbitzuak lankidetzaren teknikoaren aukerak aztertzeke prest egongo liratekeela erantsi du. Eta Añarbeko Urak sozietatean gerentzia aldatzen ari dela, eta beraz zer jarrera hartuko duten jakiterik ez dagoela. Baina nabarmendu nahi izan du hainbat tamaina eta ikuspegitako agentziak edukitzea garrantzitsua eta interesgarria litzatekeela, hainbat mailatako ekarpenak egin ahal izateko.

Fernando San Martínek Txingudiko Zerbitzuetako pertsonak sentibilizatzeko konpromisoa hartu du.

5. PLATFORMAN PARTE HARTZEA

Platforma sare bat da, Europan garapenerako lankidetzan diharduten toki- eta eskualde-gobernuek osatua. Europako Udalerri eta Eskualdeen Kontseiluan du egoitza, Bruselan. Idazkari nagusia Europako Udalerri eta Eskualdeen Kontseiluko idazkari nagusia da: Federique Valier.

Funtsezko bi ekintza nagusi dauzka: (i) toki- eta eskualde-mailan elkarrekiko jakintza eta ikaskuntza erraztea; eta (ii) eskualde-gobernuek lankidetzan bete beharreko zeregina sustatzea. Hiri eta eskualdeen lobby baten modura dihardu lankidetzaren deszentralizatuaren alorrean. Jarrera politikoa finkatzen du. 30 erakundek osatzen dute (eskualde- edo toki-gobernuak zein udalerri-elkarteak), besteak beste, Bartzelonako Aldundia, Kataluniako Generalitatea, FEMP, Euskal Fundazioa —Eudelek gonbidatuta—, Fons Mallorqui. Eusko Jaurlaritzak ere zeharka parte hartu du CPRMren bitartez. Europako 100.000 erakundetik gora ordezkatzeko ditu.

Europako Batzordeak finantzatutako lankidetzaren programak proposatzen dira (esaterako, Europako toki-elkartasunaren eguna instituzionalizatzea, Getxoren parte-hartzearekin). Bestetik, bazkide bakoitzak Platformarekin sustatzen dituen jarduerak espezifikoak daude (2018rako ur- eta saneamendu-programei buruzko nazioarteko jardunaldi bat proposatu da, Bilbon egingo dena).

Toki- eta eskualde-agintarien solaskidea da Europako Batzordearekiko. Europako Batzordeak CGLUrekin (hiri eta tokiko gobernu batuen sare), Commonwealth foroarekin eta abarrekin dauzka harremanak. Alabaina, nazioarteko lankidetzari buruzko edozein komunikazio Platformaren eskumena da.

<http://platforma-dev.eu/es/> webgunea dute, baita hileko informazio-buletina ere. Horrez gain, hainbat argitalpen egiten dituzte: gida praktikoak, monografikoak, etab.

Holandako VNG International-ekin batera CONNECT programa abiarazi dute, Europako udalen eta Kanbodiako, Kolonbiako, Ghanako eta Ugandako udalen arteko elkartruke teknikorako mekanismo bat.

Esperientziatik abiatua, Euskadik Bruselan duen Ordezkaritzak proposatu du Euskadik Platforman Ordezkaritzaren, GLEAren eta Euskal Fondoaren baterako ordezkari izatea. Euskal Fondoaren Zuzendaritza Batzordeak onartu du. Paul Ortegak proposatu duenez, Platformako kide izateko formalki izendatuta dauden erakundeak edozein izanik ere (proposamen irekia da parte hartu nahi duen edonorentzat), euskal lankidetzaren publikoaren erakundeek ordezkari izatea eta ikuspegia partekatu behar dute, erakundearteko beste lan-osagai bat ahalbidetzeko moduan. Informazioa, interesak, agendak eta gainerakoak nola antolatu ikusi beharko genuke. Baina dirudienez garrantzitsua litzateke Europarekiko konexioaren dimentsioa GLEBera ekartzea. Kuota ez litzateke arazo bat izango, Euskal Fondoak eta GLEAk ordainduko luketelako.

Juanma Balerdik sozializatu du Euskal Fondoak orain arte izandako parte-hartzearen esperientzia. Adierazi duenez, esperientzia praktikoak jakinarazteko gaitasuna badute, baina alderdi politikoan, ordea, muga gehiago aurkitzen dituzte: lobbyak eta abar. Orain artean Bilbok hartu du koordinazio politikoaren ordezkari izatea. Eta adierazi du GLEAren eta Ordezkaritzarekin batera marka bat osatzea oso lagungarria litzatekeela, litekeena delako osagarritasunak izatea.

Fernando San Martínek adierazi du Gipuzkoako eta Arabako Aldundiak Euskal Fondoko kideak direla. María Guijarrok proposamena aztertzeke konpromisoa hartu du, eta informazio gehiago eskatu du eskatzen ari den konpromisoaren eta eragiketen inguruan.

Juanma Balerdik adierazi duenez, erakundeek baterako ordezkari izatea beren gain hartzea, horixe da proposatzen ari direna. Hau da, Euskal Fondoaren ordezkari izatea Euskadiko toki- eta eskualde-gobernuen ordezkari izatera pasatzea. Eragiketei dagokionez, zera gaineratu du, idazkaritza tekniko eta politikoak lotura eta proposamen batzuk ezartzen dituela, eta ondoren bazkideei helarazten dizkiela, kontrasta ditzaten. Eta, proposamen batzuk, Europako Batzordeak finantzatzeko proiektu bihurtzen direla.

Azkenik Juanma Balerdik adierazi du Platforman egotea etiketa bat ere badela, sare bateko kide izatea den neurrian. Paul Ortegak nabarmendu du, halaber, proiektu horretan egoteak eta Europako beste hainbat eragileren solaskide izateak duen indarra.

6. ELGE-REN AZTERLANA

Urriaren 10ean eta 11n ELGEko ikerketa-taldeak bertatik bertara egindako bisitaldiaren harira, bertaratuei horren balioespena egiteko eskatu zaie. Juanma Balerdik adierazi du oso bilkura positiboa izan zela, eta gure informazioak elkartrukatzeko laguntza handikoa izan zela, erakunde bakoitzak genero-politikak nola bideratzen dituen ikusteko aukera eman zigulako.

Noemí de la Fuentek erakundeak animatu ditu kasu-azterlanaren eta dokumentu osoaren berrikuspenean parte hartzera, azaroan zirriborroa bidaltzen digutenean.

7. (H)ABIAN 2030

(H)ABIAN 2030 estrategiaren esparruan egindako aurrerapen nagusiak sozializatu dira: atxikimenduak, jarraipen-batzordea, antola litekeen komunikazio-kanpaina, eta oinarri-lerroa egitea.

8. EKINTZA HUMANITARIOKO ESTRATEGIA

GLEAren Ekintza Humanitarioko Estrategia egiteko prozesua zertan den sozializatu da.

9. BESTE BATZUK; GALDE-ESKEAK

Aztertzeko beste gairik ez zegoenez, 14.15ean Paul Ortegak amaitutzat jo du bilkura.

NOEMÍ DE LA FUENTE PEREDA

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN
ERAKUNDEARTEKO BATZORDEKO
IDAZKARIA**

JUAN ANTONIO FERNÁNDEZ

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN
ERAKUNDEARTEKO BATZORDEKO
PRESIDENTEA**